


## Bihar, kros herrikoa

200 lagun espero dituzte ▶ 5



# Leitzarrek irmo erantzun dute Igor Astibia espetxean sartu izana

**PROTESTAK** ▶ la erabateko geldialdia izan zen atzo eta ehundaka herritar bildu ziren manifestaldian ▶ 7



Jende asko bildu zen atzo eguerdian manifestazioan. J. ASTIBIA



MADDI SOROA

## Biharko manifestaziorako deia «eskertu» egin dute

**TOLOSA** ▶ Tolosa Bizirik-eko bost zinegotziek bere egiten dute herritarren deialdia eta ekimenak eramango dituzte udaletxera ▶ 2

**VILLABONA** ▶

## Mendi Astea antolatu du Aizkardi elkarteak datorren asterako

Hitzaldiak, proiektzioak, ibilaldia eta babarrun jatea izango dira ▶ 4

**TOLOSA** ▶

## Tolosar bat tenis txapelketan irabazle

Lara Arruabarrenak Bordelen irabazi du ▶ 3

**BERASTEGI** ▶

## Biharko Azoka Egunak emango dio amaiera Kultur Asteari

Gaur txotxongiloak eta hitzaldia izango dira; bihar, bertsoak ▶ 6



POLITIKA ▶

# Biharko manifestaziorako deia «eskertu» eta bere egin dute

Zinegotzi «ez legitimoen» dimisioa eskatu dute Tolosa Bizirik taldeko zinegotziek



Tolosa Bizirik taldeko bost zinegotziak manifestaziorako deia eskertzeko Kultur Etxean emandako prentsaurrekoan. MADDI SOROA

## ERREDAKZIOA

Tolosako Udalean herriaren borondatea islatu dadin herritar talde batek aurrera darman ekimena «oso modu positiboan» baloratu dute Tolosa Bizirik taldeko bost zinegotziek —Antton Izagirrek, Begoña Aldalurrek, Hector Espinek, Iban Ortizek eta Aitor Iztuetak— emandako prentsaurreko batean. Iritzi desberdineko 1.200 tolosarren babesa lortzea euren sinadura publikoaren bitartez ez dela «txantxetako» diote eta helburua erdies-tearren datorren iganderako egin duen manifestazio deialdia «biziki» eskertzen dute.

Guzti horrek herritarrek «Tolosako Udaleko alderdi politikoek gauzatzen duten *apartheid*aren aurkako jarrera» dutela eta egoera konpontzearen «alderdi hauek ez bezala, konpontbideak bilatzearen aldeko posizioa» babesten dutela

adierazten duela diote. Orain arte Udaleko hainbat alderdi politikok Tolosa Bizirik taldeko zinegotziak «mespretxatuta eta ahaztuta» eduki arren, «egoera bere horretan ezer gertatu izan ez balitz bezala pasa dadin apustua» egin badute ere, «bada gutaz oroitu den herritarrik, eta hori eskertzekoa da», diote.

## Protesta udaletxera

Horrelako sostengua ez dute «alferrik galtzen» utziko eta herritarrek hautaturiko zinegotzi bezala «dagozkigun eskubideak indar handiagoz» exijituko dituztela eranstean dute. Herritar horiek hasi duten ekimenaren «lekukoa jasotzeko konpromisioa» hartzen dute eta egoera konpontzeko egin beharreko ekimenak udaletxera eramango dituzte «*apartheid* honen aurkako protesta bertan azalduz».

Abiatutako bide honek jarraipena «izan behar duenez» hurrengo hilabeteetan ere «*apartheid* egoera hau» konpontzeko hainbat ekimen abiaraziko dituzte eta horretarako «herritarren bultzada eta babesa ezinbestekoak» izango dituztela diote zinegotziek.

Joan den igandean Anoetako Belodromoan ezker abertzaleak egindako adierazpenak ere aipatu dituzte Tolosa Bizirik taldeko zinegotziek: «Ireki dai-tekeen abagune historiko berriaren herritarrek ez dute inondik ere *apartheid* egoeraren mantentze hori onartuko eta Tolosa Bizirik taldeari Udalean dagoen tokia indar handiagoz eskatu dute. Guk ere horrela egingo dugu eta herri honen normalizazio politikoan aurrera egingo bada eta horretarako borondatea dagoela frogatu nahi bada, hainbat alderdi politikok hortxe izango dute aukera».

## Lehen pausoa, dimisioa

Konponbidearen hasiera zein den «beste behin» plazaratu zuten: «Tolosako herriak aukeratu ez dituen eta Udalean jarraitzen duten bost zinegotzi ez legitimo horien dimisioa da lehen pausoa egoera hau konpontzeko». Pauso hori ematen ez bada, dimisioarena alegia, «*apartheid* egoerak» jarraituko duela eta horrela Euskal Herriaren normalizazio politikoa «ezinezkoa» dela diote.

Borondate ona «ekintzetan» erakusten dela azaldu dute eta datozen hilabeteetan ikusiko dutela Tolosako Udalean dauden alderdi politikoek «herriak eskatzen dien neurria» ematen duten edo ez.

Bukatzeko, igandean egingo den manifestaziorako deia berea egiten dute eta Tolosako herritarrei bertan parte hartzeko gonbitea luzatzen diete bost zinegotziek.

BABARRUN ASTEA ▶

## Ametsek eta Orbelak egin dituzte pintxo onenak

Aipamen berezia Gorrotxategiri; gaur, lehiaketa eta bihar, artzai txakurrak

## ERREDAKZIOA

Babarrunaren Pintxo Lehiaketaren epaia ezagutzera eman du Udalak. Bi modalitate zeuden: pintxo onena eta aurkezpen onena. Pintxo onena Amets tabernakoa aukeratu dute, Ikatza taberna eta Astelena jatetxearen aurretik. Aurkezpenean berriz, Orbelako pintxoak aukeratu zuten Astelena jatetxea eta Iruña tabernaren aurretik.

Urdira txiki, Gure kaiola, Ero etxe, Iurre eta Tolosano elkarteek osatutako epaimahaiak Rafa Gorrotxategi gozoglearen pintxoaren aipamen berezia egin zuten, erakutsitako asmamen, sormen eta berrikuntzagatik». Parte-hartzaile guztien goi maila, pintxoaren aniztasuna eta prestaketan erakutsitako maila aipatu zuten. Diplomak bihar 13:00etan banatuko dira Ferialekuan.

Babarrun Astea egun garrantzitsuena iritsi da. Gaur goiz osoan zehar azoka, ekoizleen lehiaketa eta lakari enkantea izango da Trianguloan, txapela lehiaketa Txinparta elkartearen, pailazoak Berdura plazan, txarangak, pilota, dantza jaialdia...

Bihar, lehiaketa gastronomikoa eta bazkaria izango da Ferialekuan. 11:00etan VII. Artzain Txakur Lehiaketa izango da Iurreamendiko belazetan parte-hartzaile hauekin: Andres Atxaren Txato, Jabier Zubiaurreren Txiki, Xabier Urienen Txiki, Jon Zuazoren ZorGIN, Jose Mari Bereziartuaren Lau eta Iñaki Ostolazaren Jai.

hitza

# txokoa<sup>lagunen</sup>

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZAREN harpidedun laguntzaile bazara, **ILARGIAREN SEKRETUA** filma, azaroaren 26an Tolosako Leidor Zinemaren ikusteko aukera izango duzu.

▶ DEITU ETA HAR EZAZU PARTE 10 SARREREN ZOZKETAN

**ZU IZAN ZAITEZKE IRABAZLEETAKO BAT!** 943 65 56 95  
(11:00-13:00 / 16:00-19:00)

hh



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶

**Ramadan amaierako festa irazkiren eskutik**

Magreb astea bukatzeko, Ramadan amaierako festa antolatuta du gaurko Irazki elkarte kulturantzak. 11:00etatik 14:00etara plaza Berrian Idoia Sanchezek Magrebeko ipuinak kontatuko ditu, henna tailerra, janari dastaketa eta musika izango da. Gauean berriz, Abastos plazan afaria izango da janari tipikoekin eta Bouhia talde berberearen kontzertua izango da. Afarirako txartelak Ikatzak, Iratxo eta Tolosa CF tabernezan eros daitezke 12 eurotan.

MUSIKA ▶

**Santa Zeziliako ekitaldiak Musika Eskolan**

Datorren astelehenean Santa Zezilia eguna musikarientzaindaria denez, hainbat ekitaldi antolatuta ditu Eduardo Mokoroa musika eskolak. Gaur 19:30ean Miguel Angel Morenok zuzentzen duen Ikasleen Banda aterako da kalejiran eta astelehenean 18:15ean akordeoi, bibolin eta perkusio talde berezi bat Alde Zaharrean ibiliko da Patxi San Sebastianen zuzendaritzapean. 20:00etan Musika Banda aterako da kalera.

KIROLA ▶

**Sella ibaia igeri jaitsiko du gaur Carlos Peñak**

Laugarren aldiz Carlos Peña igerilari tolosarrak gaur Asturiasko (España) Sella ibaia jaitsiko du bizkar estiloan. 19 kilometroko ibilbidea egingo du, Arriondaseko zubitik Ribadesellarraino. Garai hone-tako eguraldi baldintza gogorak eta ur hotza izango ditu oztopo nagusiak.

MUSIKA ▶

**Hodeiertz eta Larte jazz taldea gaur Araian**

Gaur 20:15ean Hodeiertz abesbatzak Larte jazz taldearekin batera kontzertua eskainiko du Araiako (Araba) elizan. Kontzertuan abesbatza musika eta jazz nahastu dituen *Umama* CDko abestiak entzungo dira.

TENISA ▶



Lara Arruabarrena tenislari tolosarra, txapelketa amaituta, garaikurra eutsiz. HITZA

**Lara Arruabarrena, Gradignan-go Tenis Txapelketako irabazle**

Bordelen (Frantzia) jokaturiko tenis txapelketan, mundu osoko jokalaririk onenak kanporatu ditu garaipenerako bidean

INIGO ASENSIO

Lara Arruabarrena 12 urteko tolosarrak bere bizitzako garaipena lortu du Bordelen (Frantzia): Gradignan Nazioarteko Tenis Txapelketa irabazi du. Arruabarrena bost kontinenteetako jokalaririk onenak garaitu zituen garaipenerako bidean. Final-laurdenetan Laura Maisonnave faborito nagusia kanporatu zuen. «Hori izan zen txapelketako neurraketa zailena», dio tenislari gazteak. Honen ondoren, Xenia Knoll suitzarra garaitu zuen finalerdietan. Eta final handian Claire Sophie Coste frantziarra izan zuen aurrez aurre; 6-3 eta 6-1eko emaitzarekin garaitu zuen.

Txapelketa entzutetsu hau lortzen duen lehen euskalduna da tolosar gazte hau. Azken urteotan Feliciano Lopez, Justine Henin edota Roger Federer-en mailako tenislari handiek lortu duten txapelketa bera irabazteak zer suposatzen duen galdetzen. Arruabarrena bere adinerako ezo-hikoa den heldutasuna erakusten du: «Aurten txapelketa ugari irabazten ari naiz, baina lehengo urtean ez nuen ia garaipenik lortu; ni gustura aritzen naiz tenisean, hortik aurrera ikusiko da».

Progresioa da, hain zuzen ere, bere adineko kirolari gazte

batentzat garrantzikoena. Umetatik erakutsi zuen kirolerako daukan dohain berezia. 7 urterekin hasi zen tenisean; hasiera batean asteburuetan soilik aritzen bazen ere, poliki-poliki bere zaletasuna handitzen joan da. Egund, arratsalde-joan da Donostiako Tenis Club-era entrenatzen.

Ikasle ona da, eta garbi dauka ez dituela ikasketak ade-batera utziko. Denborarekin, futbola, saskibaloia, pilota eta bestelako kirolak utzi behar izan ditu, orain arte lesioek nahiko errespetatu duten arren, «arriskatu egia» baita txapelketa garrantzitsuak datozenean beste kirolak praktikatzea.

Exijentziak handituz

Gipuzkoako txapeladuna da, bai alebin eta baita adin mugarik gabeko mailetan. Euskal Herriko alebin onena izateaz gain, Espainiako zortzi onenen artean dago, eta bikotekako Espainiako Txapelketan bigarren sailkatu zen. Gradignan-eko garaipenarekin urte bikainari eman dio amaiera, eta orain aurrera begira jartzeko ordua heldu zaio: «Oraindik 3 urte ditut presio gehiegirik gabe ibiltzeko; 15-16 urterekin ikusten da tenislariak aurrera egiteko aukerarik duen al ez».

Nazioarteko tenisaren maila gorenean egoteko, lana gogoz egin behar da. Gaztea bada ere, exigentzia maila handiko kirola hautatu du Arruabarrena, eta hori gero eta gehiago nabaritzen du. Urtarrietik aurrera infanila izango da, eta orduan garai gogorragoari ekingo dio, bai lehiaketari bai entrenamenduari dagokienez. Baina horrek ez du ikaritzen, orain arte infantil mailako tenislariak garaitu izan baititu alebin izanik: «Konpetizioetan jokalaririk hobeekin neurtzea motibazio handia izango da». Helburuak ere zailago izango dira orduan. Infantil mailako Euskadiko Txapelketa lehendabizi eta Frantziako jokaturiko den beste nazioarteko txapelketa ondoren. Bertan parte hartu ahal izateko puntuak lortu beharko ditu tarte horretan, eta horretarako lan egiten ari da.

Bere tenislari gustukoena nor den galdetzean Lara Arruabarrena ez du zalantzarik: «Juan Carlos Ferrero gustatzen zait».

HITZA ▶

**Pixkanaka gorantz doa harpidedun kopurua**

Denon beharra du HITZAK proiektua sendotzeko; gainera abantailak ditu

JOXEMI SAIZAR

HITZAREN harpidedunen kantua emaitza onekin ari da burutzen egun hauetan. Urteroko diru laguntza eman duten irakurleak asko dira eta ia zoko emaitzak gaintu egin dira jada. Hala ere denon laguntza behar da proiektua sendotzeko, autofinantziaketa ziurtatzeko eta aurrera jarraitzeko.

Duela aste batzuk telefono deiekin hasi zen kanpaina eta fase hori bukatu da jada. Kontu korrontearen zenbakia eman zuten harpidedunak egin zaie jada urteko kobraketa —aurten 42 euro dira—. Beste harpidedun batzuen kontu korrontea falta da. Zenbaki hori emateko Bezero Arretako telefonora (943 30 43 46) deitzea edo harpidedunak hitza.info posta elektronikoa dira biderik egokienak. Kontu korrontea eman nahi ez dutenek laguntza emateko beste bi bide dituzte: erredakzioan (Araba etorbidea 5, atzealdea, Tolosa) eskura ordaindu edo Euskadiko Kutxan dirua ingresatu gutunez bidalitzeko kontuan eta harpidedunaren kode zenbakia zehaztuz.

Gogoratu behar da diru laguntza ematen duten harpidedunek zenbait abantaila dituztela: pilota partida eta zinemako sarrera eta dendari laguntzaileen opariren zozketetan sartzen dira, promozioetan parte hartzen dute, dendetan deskontuak dituzte zenbait kanpainatan...

Oraindik laguntza eman ez duten irakurleak horretara animatu nahi ditugu. HITZAK denon beharra dauka oraindik. Gainera abantaila ugari dituzte harpidedunek. Zalantza guztiak argitzeko Bezero Arreta telefonora (943 30 43 46) dago.

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Non dago anoetarren dirua?

Orain arte Anoetako gaur egungo alkateak gezur eta astakeria asko esan ditu; eta normalean erru guztiak guri botatz. Isilik egon gara baina bai prentsan eta bai *Berriak Berrin* argitaratutakoekin aski da esan dugu.

91-95 legegintzaldian EA-PNV agintean egon ondoren, 95ean Udalaren ardura hartu genuen eta egoera ekonomikoa ez zen oparoa, udal langileak ordaintzeko ere kredituak

eskatu zituzten EA-PNVkoek. Geroztik ez da kreditu gehiago eskatu eta 2003.an Udala uztera derrigortuak izan ginenean, 100 milioi pezeta inguru banketxetan zeunden eta horren adierazgarri 2003.an Udalak milioi pezetatik gora interesetan kobratu izanean dago (denok dakigu bankuek zenbat ematen duten interesetan!).

Beraz, herritarren poltsikoak gehiegi zigortu gabe, balantze positiboa zen arlo ekonomikoan. Zortzi urte hauetan udal patrimonioa handitzeko, ezker abertzaleak lorpen hauek ere egin ditu:

- Plazaren urbanizazioa parke eta jolastokiarekin.
- Erosleko lokala erosi eta ekipatu.
- KZguneko lokala erosi.
- Jubilatuuen egoitzarako 220 m<sup>2</sup>.ko lokala, proiektua egin eta martxan jarri.
- Korreosi utzitako lokal berria.
- Garajeak parke azpian.
- Korreosen parean beste lokal bat.
- Frontoiko aldageletarako lokala eskuratu eta ekipatu.
- Haurtzaindegirako lokalaren erdia eskuratu.
- Babes ofizialeko etxeak

eraikitzeko terrenoa eskuratu.

-Kiroldedia eraikitzeko terrenoa eskuratu, proiektua egin eta finantziatzeko plangintza urbanistikoa martxan jarri.

Guzti hau zorrik gabe, krediturik eskatu gabe eta gainera dirua utziz.

Beraz, Udala diruarekin eta kiroldegiaren gastuei aurre egiteko plangintza urbanistikoa bat martxan zuela utzi genuen. Guzti honen aurrean galdera hauek sortzen zaizkigu:

- Zergatik bota zenuten behera plangintza urbanistikoko hori?
- Zertan gastatu da utzi gure dirua?

Alkate jauna, 8 urtetan guk Udalean ez genuen zorrik utzi eta zuk urtebetean Udala 20 urtetarako zorpean jarri duzu. Hori al da plangintza ekonomiko orekatua? Zer espero behar duzu hemendik aurrera? Fidelek egindako zorrak ere gure erruak izango dira?

Lehen ere azaldu izan gara eta herritarren aurrean nahi dezun garaian azalduko gara behar diren azalpen guztiak ematera.

JOXE MARI SARASOLA ▶

EZKER ABERTZALEKO ALKATE ETA ZINAGOTZI OHIEN IZENEAN (ANOETA)

## LARRAUL ▶

### Ekitaldi ugari antolatu dituzte Kultur Asterako

Txotxongilo emanaldia egingo da Enkarni Genuaren eskutik astelehenean

I. GARCIA

Hurrengo igandera arte luzatuko dira Larraularen prestatu dituzten ekitaldiak Kultur Astearen baitan. Gaur bertan talo ikastaroaren bigarren saioa egingo da Katillutxulo elkartean, 16:00etan. Astelehenean, hilak 22, txotxongilo emanaldia egingo da herriko ostatuan. Enkarni Genuak *Herensugea* obra eskainiko du 17:00etan. Hurrengo ekitaldiak ostiralean, hilak 26, izango dira. 17:00etan herriko haurrentzat merienda emango da Katillutxulo elkartean. 18:00etan haurrentzako bideo emanaldia izango da udaletxeko liburutegian. 21:00etan bertso afaria egingo da Katillutxulon.

Larunbatean, hilak 27, 15:30ean hasita mus txapelketa Katillutxulo elkartean. 17:00etan Aiztondoko argazki rallyko argazkien erakusketa eta sari banaketa egingo da udaletxean. 17:00etatik 19:00etara herriko artisauen erakusketa herriko ostatuan.

## VILLABONA ▶ MENDI ASTEA



Pou anaiak beren azken eskaladen berri emango dute. HITZA

# Mendia protagonista

### Aizkardik Mendi Astea antolatu du datorren astelehenean hasita

IMANOL GARCIA

Urtero legez, Mendi Astea antolatu du Aizkardi Mendi Elkar-teak. Astelehenean, hilak 22, Anjel Cuerdok *Zanbezi ibai basatia* hitzaldia emango du. Arratsaldeko 20:00etan izango da, Gurea aretoan. Asteartean, arratsaldeko 20:00etan eta Gurea aretoan ere, Iker eta Eneko Pou anaia eskalatzaileek *Kapitaina eta Narancoen mendebaldeko horma era askean* hitzaldia eskainiko dute. Asteaz-

kenean, hilak 24, Jon Beloki mendizaleak *Jainkosen altzoan* hitzaldia emango du, 20:00etan eta Gurea aretoan. Ostiralean, hilak 26, *Ttontrrez ttontr* diapositiba emanaldia, Aizkardiko umeen irteerak erakutsiz, Zentroko Satorra aretoan, 20:00etan. Igandean, hilak 28, mendi ibilaldia Kanaletako bidea eginez. Irteera Olaederratik, goizeko 8:30ean. Ondoren, babarrun jatea Alustiza baserrian. Izena ekitaldietan eman daiteke.

## VILLABONA ▶ GIZARTEA



Urtebete bahiturik, Goros etxera lelopean egin zen manifestaldia. I.G.

### Gorostidiren askatasuna eskatu dute

Euri artean, dozenaka lagun bildu ziren atzo arratsaldean Villabonan Eneko Gorostidiren askatasuna eskatuz. Manifestaldia herriko plazatik abiatu zen eta herriko zenbait kale zeharkatu zituen. Gorostidi gazteak urtebete darama preso eta gaur egun Aranjezeko espetxean dago.

## ADUNA ▶ KULTUR ASTEA



Loatzoko ikasleek emandako kontzertuaren momentu bat. I. GARCIA

### Musikaz bete zuten gaztetxoek eliza

Adunako eliza goraino bete zuten Loatzoko ikasleek emandako kontzertua entzuteran joan zirenek. Herri ezberdinetako musika ikasleek txalo zaparradak entzun zituzten. Gaurko egitaraua goizeko mendi martxarekin hasiko da. Arratsaldean, umeek eskulak egiteko aukera izango dute irakasleekin, 16:00etan. Ondoren, 18:00etan, herri kirolen ikuskizuna: Joseba Otaegi eta Jesus Mari Lasa aizkolariak eta Aimar Irigoien harrijasotzaileak. Ekitaldi hau amaitu eta gero, frontoian barrikotea izango da, gaztain eta talo jatearekin batera. Bien bitartean, 17:00etatik 20:00etara artisau erakusketa izango da kultur aretoan.

**Exkabazioak** Lur mugiketak, eskoiletak eta Garraioak

PERU, S. L.

Tel: 945 77 36 81  
T. f. 945 77 36 81  
E-mail: peru@peru.es

**OSTATU JATETXEA**  
(ALKIZA)

ITXITA EGONGO DA  
HERIOTZAGATIK  
HURRENGO ABISU ARTE

VILLABONA ▶

**Milaka lagun erakarriko ditu Ikasle Eguna**

Gaur goizetik hainbat ekitaldi izango dira Villabonan, Ikasle Eguna dela eta. Antolatzaileek milaka lagun azaltzea espero dute.

IRURA ▶

**Ipuin kontaketa ikastaroa etzi hasiko da**

Etzi, 19:30etik 21:30era, hasiko da ipuin kontaketa ikastaroa. 18 euro balio ditu eta oraindik izena eman daiteke.

VILLABONA ▶

**VII. Areto Futbol Torneoko partidak gaur hasiko dira**

VII. Areto Futbol Torneoko gaur hasiko da. Hemezortzi talde ariko dira lehia Olaederran bi mutzotan banatuta.

ALKIZA ▶

**Guraso eskolaren lehen tailerra astelehenean**

Guraso Eskola hasiko da etzi, hilak 22, Alkizako eskolan, 16:15etik 17:45era, Garbibe Merinorekin.

AMASA ▶

**XII. Mendiatioia izango da bihar goizean**

Amasako XII. Mendiatioia izango da 11:00etatik aurrera. Lehiaketaren aurretik eman daiteke izena.

**iragarki laburrak ▶**

**SALGAI**

**Taberna.** Gazte taberna salgai Tolosan. 660 178 183.

**Autoa.** Ibizta GT TDI (110) 84.000 km eta extrarekin. 665 707 757.

**Motorra.** Honda NS1, 80koa, tavi eskapearekin. 665 707 757.

**LANA**

**Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33

IKAZTEGIETA ▶ KIROLA

**Biharko XIV. Kros Herrikoian 200 lagun espero dituzte**

10 kilometro egin beharko dituzte parte-hartzaileek; kamisetak, hamaiketako eta zozketarako aukera jasoko dituzte trukean; haurrek ere parte har dezakete



Iaz Ikaztegieta XIII. Kross Herrikoian parte hartu zuten korrikalariak irteeran. HITZA

**MADDI SOROA**

Urtero legez, aurtengoan ere kros herrikoia antolatu du Ikaztegieta Herrigintza elkarteak, Ikaztegieta Udala, Euskadiko Kutxa eta Insalusen laguntzarekin.

Herrigintza, elkarte gastronomiko eta kulturala da. 50 bazkide inguru ditu eta herriko udaletxe atzekaldean du egoi-

tza. Urtean zehar ekintza ezberdinak antolatzen dituzte, hala nola, bazkari eta afariak, bertso saioak... Krosa antolatzeara, ordea, ohitura bilakatu da jada; izan ere, aurtengoan 14. urtea beteko baitu Ikaztegieta kros herrikoia.

Lasterketa hau, 1991ean egin zen lehenengoz. Asmo nagusia elkarte eguna ospatzea bazen ere, Herrigintza kide-

ek zerbait berezia egin behar zutela pentsatu eta krosa antolatzeara erabaki zuten.

Iaz, haurrentzako krosa ere antolatu zen herrikuntza moduan. Haurrena, ordea, «erabat sinbolikoa dela» azaldu du Joxe Mari Garmendia, Herrigintza kide eta kiroldegiko arduradunak. Izan ere, «haurrek ez dute dorsalik izaten eta gainera, haur guztiek jasotzen

dute saria», azaldu du. Haurrentzako krosa zazpi eta hamasei urte bitartekoentzat zuzendurik dago eta helduen krosa baino 15 minutu lehenago izaten da, 10:45ean, hain zuzen ere.

Helduen krosari dagokionez, 11:00etan izango da irteera eta korrikalariak 10 kilometro egin beharko dituzte. Izenematea, egunean bertan izango da 9:00etatik 10:30era, 5 euroren truke. Sariei dagokienez, berriz, kamiseta bana eta hamaiketako jasoko dute parte-hartzaile guztiek, baita kirol materialea zozketan opariak irabazteko aukera ere. Bestalde, kirol materiala jasoko dute ere lehenengo hiru emakume eta gizonek, lehen beterranoak, eta herrikoia den lehen neska eta mutilak.

Iaz, 183 lagunek hartu zuten parte, aurtengoan, «200 lagunetik gora izatea espero dugu», adierazi du Garmendia. Korrikalariak gogorarazi behar zaie kiroldegiko instalazioak erabiltzeko aukera izango dutela, dutxatu edota arropaz aldatu nahi izanez gero.

ORENDAIN ▶

**Bihar herriko iraganaz hitzaldia izango da**

**M.SOROA**

Orendaingo Kultura Batzordeak, *Orendaingo iraganari begira: eliza, udaletxea eta Orendain abizenaren historia* izeneko hitzaldia antolatu du biharko, igandea. Hitzaldia, Eltxo elkartearen izango da 12:00ak aldera —meza ondorenean— eta Agerre baserriko Pakita eta Ernesto izango dira hizlariak. Bertara gerturatutako guztiek hamaiketakoaz gozatzeko aukera izango dute. Historiari buruzko hitzaldi hau Orendaingo udazkeneko kultur egitasmoaren barnean antolatu du Udalak.

BALIARRAIN ▶ KULTURA

**Jubilatu Eguna eta Haur Eskolaren inaugurazioa izango dira igandean**

Haur Eskolaren inaugurazioaren ondoren 'lunch'-a izango dute guztiek elkarrekin

**M. SOROA**

Bi ekitaldi bilduko ditu igandean Baliarraingo herriak. Haur Eskolaren inaugurazioa izango da batetik, bestetik berriz, Jubilatuen Eguna ospatuko da.

Haur Eskolaren inaugurazioari dagokionez, 12:00etan hasiko da ekitaldia zintaren mozketarekin. Ondoren, aurrerakua dantzatuko dute eta atzetik herriko apaizak eskola bedekintuko du. Inaugurazio ekitaldiari amaiera emateko, Bixente Zubeldia alkateak hitz egingo du. Eskola inauguratu ondoren,

*lunch*-a izango da Zartagi jate-txearen eskutik.

Jubilatuen Egunari dagokionez, berriz, 11:00etako mezarekin hasi eta inaugurazioko *lunch*-arekin jarraituko du ospakizunak. Ondoren, 13:00etan *Bakardadea eta 3. adina* izeneko hitzaldia izango da udaletxean Adin Adi enpresaren eskutik. Hitzaldia amaitutakoan, bazkaria egongo da Zartagi jatetxean. Ondoren, Janire Zubeldia eta Ane Garmendia herriko trikitilarien musikaz gozatzeko aukera izango dute bazkarira inguratutakoak.

IKAZTEGIETA ▶

**Irakurketa saio bereziak izango dira eskolan**

**M.SOROA**

Ikaztegieta eskolak irakurketa saio bereziak antolatu ditu datorren astelehenerako. Helburu nagusia, haurren artean irakurketa bultzatu eta sustatzea da. Irakurketak 15:00etan egingo dira eskolan bertan, baina, bertara joan nahi duenak gonbidapena jaso beharko du liburutegian alde aurretik. Eskolako haurren gurasoak izango dira irakurleak, eta honako irakurgaiak irakurriko dituzte, *Horazio eta jaguarra*, *Kontaidazu ipuin bat* eta *Zaudete geldik pixka batean*, besteak beste.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Betikoan udal interesak (1)

Erasaten gaituzten arazoak konpontzeko gure herrian aurrerapauso bat ematea erabakitzen den bakoitzean gertatu ohi den bezala, betiko talde korala aurkitzen dugu suminduta eta aurrera eraman beharreko jarduerak guztiak gelditu nahian, era guztietako arrazoiak argudiatuz. Horregatik, komenigarria litzateke gogoraraztea EA-EAJk beti hirigintza kontuetan egindako jarduerak garrantzitsuenak eta, egun Uzta izena dutenek, jarduerak horien aurrean izandako jarrera, honela egoeraren ideia bat egin ahal izateko eta aztertzeo zein neurriraino arduratu diren udal interesez. Orain 19

urte, udal talde guztiak, orain Uzta izena dutenak izan ezik, Ibarroko lehen plangintzako arau subsidiarioak onartu genituen. Beste batzuk idatzi arte indarrean dauden arau haietan honakoak jasotzen dira: herriko mintegiak mantentzea, jada existitzen diren urbanizazio guztien birgaitzea, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea eta udalerrriak ez zituen hainbat azpiegitura (anbulatorioa, kultur etxea, udaletxe berria, eta abar) izateko aukera.

Arau hauek Ibarroko orain 19 urte zituen beharrei erantzuten zieten eta 8 urtetan herriaren garapena zein izango zen jasotzen zuten, hori baita aurreikuspenetarako ohiko denbora. Ibarroko urte batzuk daramatzazuek gogoratuko duzue zein istilu

egon ziren orain Uzta izena dutenekin arau horiek aurrera ez ateratzeko eta zein gaizki hitz egin zuten orduan *jauntxo* deitzen zituzten haiez (mintegi jabeek). Uztakoan iritzi Udalaren interesa ez zen Ibarroko baratzak mantentzea, baizik eta etxebizitzak egitea eta ondorioz, orduan onartu zen hura azpizjoko, negozio ilun eta abarren bidez egiten zen.

Gogoan izan behar da, garai hartan Ibarroko eta bere base-erriek garrantzi handia zutela nekazaritza-mailan, izan ere, Ibarroko Gipuzkoan saltzen ziren landare guztiak hornitzen zituen. Egun, nekazaritza-sektoreak, guztiak dakigun bezala, krisi larria bizi du eta merkatuetan saltzen diren landare gutxien gehiengoa Gipuzkoa kanpotik

ekartzen da, baserrien iraupena zailduz.

Emeterio Arrese parkea egitea, etxebizitzak erori behar zuten, Udalak ez zuen parkea urbanizatuko, lur azpiko aparkalekuak egiteko negozio ilunak zeuden, eta abar. Hori bai, obrak amaitu zirenean inaugurazio-ekitaldira etorri ziren.

Babes ofizialeko etxebizitzak egitea. Berrito ere Uzta kontra. Argazkiak (zinegotzienak barne) zituzten pankartak, panfletoak udalbatzaren kontra, Eusko Jaurlaritzarekin sinatu beharreko hitzarmena gelditzeko saiakera, eta abar. Hitzarmenak beti hobetu daitezke, baina besteek egin behar dute hori beti, berriek kritikatzera,.... Baina etxebizitzak eginda daudenean berriek lehenengoak izen ematen.

Apattako eskualdeko industrialdea. Manifestazioak, negozio ilunak, espekulazioa, pankartak, *Ama lurra defenda dezagun* eta abar. EHK Tolosa eta Ibarroko alkatetzak lortu zituztenean, industrialdea eskualderako lehen mailako garrantzia duen proiektu bilakatu zen eta sustatu behar zen.

Zerrenda luzea izango litzateke, baina honekin guztiarekin esan nahi duguna zera da: udal interesez hitz egin dutenak ez direla herriaz arduratu eta EA eta EAJ izan direla, funtsean, ibararreki interesatzen zitzaizkien gai guztiak aurrera eraman behar izan dituztenak. Uztakoak kritikatzera, kalumniazera eta herriak aurrera egitea eragozteko dedikatu diren bitartean.

TXELO ROMEO (EAJ-EA) ▶ IBARRA

IBARRA ▶

## Karlatz tabernakoak Gipuzkoako lehenak

Dardo txapelketan Gipuzkoako txapeldundira; Espainiarako sailkatzea lortu dute

I.TERRADILLOS

Astearte honetan jokatu du azken partida dardo txapelketan bigarren mailan dabilen Karlatz tabernako taldeak. Koldo Llorentek, Luis Oruegabalek, Haritz Martinezek, Jose Luis Rajadok, Ibai Saezek eta Txomin Apariciok osatzen duten taldeak Donostiako kanpusekoen aurka irabazi zuen, eta ondorioz Gipuzkoako lehenengo geratu dira. Hori dela eta, Ibarroko taldeak abenduaren 4, 5, 6 eta 7an Gironan egingo den Espainiako txapelketan jokatu ahal du.

BERASTEGI ▶ KULTUR ASTEA

# Bihar amaituko da Kultur Astea Azoka Egunarekin

Gaur, txotxongiloak eta hitzaldia, eta bihar Azoka Eguna izango da, bertako produktuak ikusi eta dastatzeko

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar amaituko da Berastegin Kultur Astea, baina oraindik ere gaur eta bihar, egun osoz, egitarau zabala dago gerturazten diren gozamenetarako.

Gaur 17:00etan Behi-Bis taldeak *Txakur beltz, handi eta...iletsu bat* ikuskizuna eskainiko du. 18:30ean txokolata izango da Urepelen eta 21:00etan argazki erakusketa eta hitzaldia emango du Euskal Herriko flora eta faunaren inguruan Ander Olaizolak.

Bihar, berriz, Azoka Eguna izango da 11:00etatik aurrera,



Pasa den urteko azokako gazta lehiaketan irabazleak. HITZA

eta postutan bertako produktuak izango dira eskuragai. Ordu horretan, gazta lehiaketako partaideak aurkeztuko dira, eta epaimahaia bost gazta hoberenak aukeratzeko ditu. Gazta, ipuin eta argazki rallyko irabazleen sari banaketa 12:30ean egingo da. Argazki rallyaren kasuan, 15 lagunek hartu

zuten parte eta ateratako argazkiak gaur eta bihar izango dira ikusgai Urepelen.

Bestalde, 18:00etan produktu dastaketa egingo da, eta eguna ondo amaitzeko, 20:00etan bertso musikatuak entzuteko aukera izango da. Garai batekoak eta egungoak abestuko dituzte musikarekin.

IBARRA ▶

## Etxean jokatu du Jarrilleros-en aurka

Ibarroko ezinbestekoa du izango du garaipena, beheko postuetatik irteteko

I.TERRADILLOS

Belabieta kiroldegian 18:30ean jokatu du gaur Ibarroko areto futbol taldeak Portugaleteko Jarrilleros taldearen aurka.

Portugaleteko taldeak 13 puntu ditu eta bederatzigarren postuan dago sailkapenean. Ibarrokoak, berriz, zazpi punturekin hamabigarrenean daude.

Ezin esan ibartarrak postu erosoan daudenik, hiru baitira jaitzierako postuak eta une honetan, Ibarroko azkenetik hasita hirugarren dagoen taldeak dituen puntuak ditu. Aipatu, bestalde, aurreko partidari lesionatu ziren Igor Zabalo eta Unai labaka jokatzeko prest direla.

Jubenilen ligan, Lauburuk Sestaoren aurka jokatu du, Ibarro-Jarrilleros partidaren aurretik.

hilberriak ▶

eskela hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



### Bitor Ibarbia Matxinea



Zure umorea  
eta zure bertsuak  
ez ditugu  
inoiz ahaztuko

Zure sendiaren partetik

BERROBI, 2004ko azaroaren 20a

**ESKERTZA ▶**

Bitor Zabala Amondarain jaun hil berriaren sendearen partetik, eskerrak samin agurra bidali zutenen guztiak.

**Tolosa**, 2004ko azaroaren 20a

**NATURAL - NATURALAK**



- Era naturalean eginak
- Gaztak, yogurtak, txorizoak urdaiazpikoak, odolkiak eta beste hainbat produktu.

Mahala Baserria - 20491 LEABURU • Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

LEITZA ▶ GIZARTEA

# Igor Astibia espetxean sartu dutela eta, herritarrek irmo erantzun dute protestaldietan

Bi orduko geldialdia ia erabatekoa izan da eta ehundaka herritarrek parte hartu dute manifestaldian; atxiloketa eta espetxeratzeak salatu dituzte prentsaurrean



Atzo eguerdian Leitzako udaletxean eman zuten prentsaurrekoaren irudi bat. JAIONE ASTIBIA

## JAIONE ASTIBIA

Atzo protesta eta salaketa eguna burutu zuten Igor Astibia herritarrek Garzonen aginduz jasandako atxiloketa, inkomu-

nikazio, eta bezperan agindutako espetxeratzea zela eta, eta bide batez bere senitartekoei elkartasuna adieraziz.

Eguerdian, 12:00etatik 14:00etara lanuztea zegoen

deituta. Horrela, herriko industria eta lantegi tiki, eraikuntza, komertzio, eta administrazio guneak ateak itxirik zituzten ia ehuneko ehunetan. Sarrío paper-lantegian, langileen batzordeak batzarra egiteko asmoa bazuen ere, jakitera eman zuten, zuzendaritzak ez zieten horretarako baimenik eman, hala ere LABek deituta, denbora horretan elkarretaratzea egin zuten, lantoki atarian bertan, deialdiarekin bat egin. Hezkuntzan, alde batetik, Amazabal institutuan ikasle guztiak atera ziren kanpora eta

egunerako deituta zeuden ekitaldietan aktiboki parte hartu. Irakaslegoari dagokionez berri, norbanakoek bategin zuten geldialdiarekin. Haur eskolan bai. Eta Erletan, bestalde, bertako irakasle eta langileek prentsa-ohar baten bidez jakitera eman zuten, «Igor Astibiaren familiari elkartasuna» adierazi zioten eta ulertezintzat jo zuten, «atxilotuen defentsa, hauen segurtasun fisikoa eta familiaren informazio eskubi-deak ahalbideratzen dituen legedia» izaterik. Bide batez «zenbait komunikabide Igor Astibiaren aurka esnadakoak ulertezinak eta izugarri larrizat» jo zituzten ere.

## Herritarren salaketa

Hain zuzen ere, herritarren kezka agerian gelditu zen, atzo burutu zen manifestazio jendetsuaren aurretik, hainbat eta hainbat herritar, senide eta ezagunek eman zuten prentsaurreko era berean jendetsuan. Leitzako udaletxeko batzara aretoa jendez lepo bete zen, han irakurri zuten komunikatuari atxekimena adieraztera. Horrela, hasiera hasieratik nabarmendu eta argi utzi zuten, Garzonen aginduz, Igor da goeneko espetxean daukaten arren, «epaile horren beraren

akusazioa ukatu egin ditu», eta «euskal herritarrek atxilotu eta espetxeratzea hain gustuko duen Madrileko epaile horren hitzaren gainetik, gure senide, lagun edo auzoa den Igorri sinesten diogu», adierazi zuten argi eta irmo. Azken aldia «inpunitate osoz» Euskal Herrian burutzen ari diren operazioez oharpina egin zuten eta hauek atxilotu ezarri ohi dieten inkomunikazioaren ondorio zuzen eta latzen gainean erreflexioa egin: «badakigu herri honetan inor erruduna frogatu beharrean, errugabetasuna dela frogatu behar dena».

Honen harira, «egoera gaizto eta krudel honetan egin diren akusazio merke eta frogarik gabeko» eta hauek hedatzeko hainbat komunikabidek duten «erraztasunaz» baliatzea ere salatu zuten, «zenbait beren desio eta gezurrak berehala plazaratzeko» egin duten erabilpenaz ohartaraziz.

Familiari beren elkartasuna adieraztearekin batera, bi eskari egin zituzten han bildutakoek. Alde batetik (Igor bezela, gainerako atxilotuak ere aske uztea); bestetik («estatuen errepresioa buka dadila»), «elkarrizketaren, demokraziaren eta herritarren borondatea errespetatzeko garaia» hasiz.

Adierazpenak egin ondoren herrian barrena manifestazio jendetsu eta sentitua burutu zuten, 400 lagunek baino gehiagok.

Esan behar senideak goizaldean, 6:00ak aldera, iritsi zirela Madrildik, Igor Astibia epailearen aurrean nahiz polizien eskutan, egotzi nahi dizkieten akusazio guztiak ukatu, eta hala ere espetxera bidean utzita, Riofrio tabernako atari hotz eta ilunean egun osoa berrien zain, senidearen zain, zerbaiten zain, egon ondoren. Hotza eta gogorra da hango egonera.

## GERTUTIK ▶ IGOR ASTIBIA

### Langile porrokatua

Igor Astibia, Leitzan jaio zen 1975eko otsailaren 9an. Leitzan bizi eta hazitakoa, egun Iruñean bizi da.

Leioan egin zituen unibertsitate ikasketak, hiru arlotan lizentziatu tituludun bilakatu: Soziologia Politikoan, Soziologia Urbanoan eta Zientzia Politikoetan. Honekin batera gai horiei lotutako bestelako ikasketak eta ikerketen egile ere bada.

Betidanik herrigintzari lotuta, euskaingintzan eta kultur-gintzan jardun du buru-belarri. Gaur egun Kontseiluko langilea da.



Igor Astibia leitzarra. HITZA

**ARAMBURU**  
Salgai (Tolosa). Pisu handia Gorosabek 40ean.  
Salgai (Tolosa). Pisu altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean, 49.000.000 pta.  
Salgai (Tolosa). Pisu igogailuarekin Larramendi kalean, 30.000.000 pta.  
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m2.  
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Erremontari kalean. Pizzeria edo bokolategia jartzeko egokia.  
Alokatzeko (Tolosa). Bulegoa Korreo kalean 1.pisua igogailuarekin  
Alokatzeko (Tolosa). Nafarroa Etorbidean garaje irekiak.  
Alokatzeko (Tolosa). Garaje ibia Amaro azuzoan, Karabana balentzako egokia.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**Herri Irratia**  
**RADIO POPULAR**

**TOLOSALDEA**  
1224 AM | 87.9 FM  
99.8 FM | 94.8 FM

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 20a, larunbata ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Aduna, Abitur, Alegia, Alkiza, Alzo,  
Amesola, Anoeta, Ballarain, Belsarntza, Berastegi, Edoain,  
Hernialde, Ibarra, Irujo, Larnadi, Leaburu, Lizartza, Orendain,  
Oreña, Tolosa, Villabona, Zizurki

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jauriaritza.  
Kultura Saila



GAURKO  
EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Aduna.** Plazatik abiatuta 9:00etan Belkoain mendira mendi marxa antolatu da. Jaitsieran Garate estudioan hamaiketakoa

**Berastegi.** Ikuskizuna, txokolatada, erakusketa, hitzaldia... Kultur Astean.

**Gatzelu.** Kontzejuaren irekiera. 17:00etan txokolatada; 19:00etan sagardo dastaketa;

20:30ean herri afaria;

22:30 Martxaundi gaua

Jone bakarlariarekin

**Larraul.** Herriko emakume

talogileek taloak egiten

erakutsiko dute 16:00etan

**Tolosa.** Goiko Irratiaren

Kornerra saioa entzungai

13:00etan, 107.0 FMn.

**Tolosa.** Antzerkia zeinuen

hizkuntzan Leidorren

17:30ean. Gorren elkarte.

**Tolosa.** Tolosako Udaberri,

Villabonako Oinkari eta

Ibarrako Alurr dantza

taldeen jaialdi berezia

Beotibarren 22:00etan.

**Villabona.** Ikasle

Eguna. Goizetik hasita:

ikasleen arteko olinpiadak,

erakusketa, herri bazkaria,

bertso saioa, kale

animazioa, manifestaldia,

ekitaldia eta kontzertu

erraldoia.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Tolosa.** Santamaria 1.,

Nafarroa etorbidea 2.

Tlf: 943 65 46 10.

**Leitza.** Larraia M.I. Elbarren

95. Tlf: 112.

### MUSIKA

**Anoeta.** Musika ikasleen

kalejira erraldoia 12:00etan.

**Ibarra.** Loatzo musika

eskolako ikasleen kalejira

10:00etan

**Tolosa.** Bartzelonako Nisei

eta Zein? taldeen kontzertua

Bonberenean 22:30ean.

**Tolosa.** Eduardo Mokoraa

musika eskolako ikasleen

Bandaren kalejira 19:30ean.

**Tolosa.** Bohuia talde

berbetea Abastos plazan

gauean.

**Villabona-Zizurkil.** Musika

ikasleen kalejira izango da

10:00etan.

### ZINEMA

**Tolosa.** Resident Evil 2

Apocalypse. 19:30ean eta

22:30ean Leidorren.



Andoaingo Zozongo taldearekin hasi zen inaugurazioa. HITZA



Ping-pong-ean eta beste zenbait mahai jokoetan aritu ziren. HITZA

# Gazte Topagunea gurekin da

**TOLOSA ▶** Datorren igandean Txuri Urdinerako irteera antolatu dute; bihar izango da izena emateko azken eguna, Kultur Etxean



DJ-aren saioaz gozatzeaz batera ikasteko aukera ere izan zuten Gazte Topagunean. HITZA

### MADDI SOROA

Joan zen asteburuan ireki zuten ateak Gazte Topagunea. Gaztetxok mahai jokoetan jokatuta eta lagunartean egoteko aukera izan zutelarik. Datorren igandera, azaroak 27, Txuri Urdinerako irteera antolatu du Topagunea. Izena emateko, 21a baino lehenago egin behar da topagunean bertan.

Pasa den larunbatean inauguratu zen Gazte Topagunea Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian, erantzun bikaina izan zuelarik gazteen aldetik. Arratsaldeko 16:30ean eman zitzaion hasiera inaugurazio festari. Andoaingo Zozongo perkusio taldeak eskainitako emanaldiarekin. Eguraldi txarrraren ondorioz, Zerkausion jo behar izan zuten Zozongo taldeko kideek. Atertu zuenean, Alde Zaharreko kaleak girotu zituzten. Ondoren, Kultur Etxeko areto nagusian jarraitu zuten festarekin; bertan, DJ emanaldia eta askaria izan zituzten bertaratutako haurrek.

### ZORION AGURRAK ▶

### AGURRA ▶



#### URTE ASKOAN

**Ane Iturrioz Irigoien.**  
Gaur 7 urte. Zorionak  
familiarren partetik.



#### URTE ASKOAN

**Maren Gurrutxaga (Lazkao).**  
Zorionak! Familiarren eta batez  
ere Enaut lehengusuaren partez.



#### Bittor Zabala Amondarain.

Ibarrako Sendi Ekintza  
Guraso Elkarteak,  
esker onez urte  
hauetan egindako  
lanarengatik.  
Gogoan  
izango zaitugu beti.

